# MARKINA-XEMEINGO TOKIKO AGENDA 21

## IRAUNKORTASUNERAKO UDAL PROZESUA



## IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANA

*2005eko urria*

# AURKIBIDEA

**1 AURKEZPENA........................................................................................ 7**

**2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA PLANERA........................................................ 10**

2.1. Diagnostikoaren berrikuspena ........................................................ 11
2.2. Helburuak........................................................................................ 12
2.3. Diagnostikoaren ondorioak eta helburuen proposamena................................ 13

**3. TOKIKO EKINTZA PLANA........................................................................ 25**

3.1. Ekintza Planaren egitura eta edukiak.............................................. 26
3.1.1. Egitura ...................................................................................... 26
3.1.2. Ekintzen oinarrizko ezaugarriak................................................. 27
3.1.3. Ekintzen ezaugarri ekonomikoak eta horiek aurrera eramateko ardura .. 32
3.2 LERRO ESTRATEGIKOEN LABURPENA,.................................................... 33
PROGRAMA ETA EKINTZAK.......................................................................... 33

**4. JARRAIPEN PLANA................................................................................ 51**

4.1. Aurkezpena...................................................................................... 51
4.2. Iraunkortasunerako adierazle sistema ............................................ 51
4.2.1. Adierazleen ezaugarri eta helburuak.......................................... 51
4.2.2. Aukeraketa irizpideak ................................................................ 51
4.2.3. Adierazle sistema desberdinak................................................... 52
4.2.4. Proposaturiko adierazle sistema................................................. 53

**5. JARRAIPENA ETA PARTE-HARTZEA....................................................... 57**

**6. TOKIKO AGENDA 21EN EKINTZEN KUANTIFIKAZIO EKONOMIKOA............ 59**

**1 ERANSKINA: EKINTZEN DESKRIBAPEN FITXAK ........................................ 61**

**2. ERANSKINA: ADIERAZLEAK KALKULATZEKO FITXAK ............................. 100**

**3. ERANSKINA: HERRITARREN PARTE-HARTZE FOROAREN ARAUDI EREDUA .................................................................................................. 135**

# MARKINA-XEMEINGO TOKIKO AGENDA 21

## UDALTALDE 21 LEA-ARTIBAI

### LEA-ARTIBAIKO UDALTALDE 21 ESKUALDEKO BATZORDEA

PARTE HARTUTAKO UDALETXEAK

Rodolfo Bakeriza Fernández. Berriatuako Alkatea

Iñaki Sudupe Oregi. Etxebarriako Alkatea

Mª Angeles Aldecogaray Alastra. Gizaburuagako Alkatesa

Jesus Mª Lekerikabeaskoa Arrillaga. Ispasterko Alkatea

José Mª Cazalis Eiguren. Lekeitioko Alkatea

Javier Alberdi Ibaibarriaga. Markina-Xemeingo Alkatea

Luis Mª Ocamica Gogenola. Mendexako Alkatea

Aitor Maruri Txurruka. Ondarroako Alkatea

LEA-ARTIBAIKO AMANKOMUNAZGOA

Iñigo Ansola Kareaga.Lea-Artibaiko Lehendakaria

Luis Cazalis Eiguren. Ingurugiro Sailaren Arduraduna

Ana Izquierdo. Ingurumen Teknikaria

IHOBE

Josu Sanz

Xabier González

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Joseba Garcia

# EKINTZA PLANA LANTZERAKOAN PARTE HARTU DUTEN LAGUNTZAILEAK

## ARDURADUN POLITIKO ETA TEKNIKOAK

Javier Alberdi (Alkatea)

José Mari Jaio (Zinegotzia)

Iñigo Ansola (Zinegotzia)

Txema Iriondo (Arkitektoa)

Mikel Elorza (Aparejadorea)

Iratxe Errementeria (Administrazioa)

Izaskun Ikaran (Ongizate Teknikaria)

Igor Idoeta (Liburutegiko Teknikaria)

Gotzone Aiarzaguena (Udaltzaingoa)

## AHOLKULARI TALDEA: ONDOAN S.COOP eta HAIZEA S.L.

Jon Zubiria. Koordinatzailea

Maider Etxaide. Koordinatzailea

Ainhoa Zubillaga. Teknikaria

Arantza Zubizarreta. Teknikaria

Juan Mari Apaolaza. Teknikaria

Laura Moreno. Teknikaria

Leire Egaña. Teknikaria

María Heras. Teknikaria

Junkal Fernández. Teknikaria

# 1 AURKEZPENA

1992an Rio de Janeiron ospaturiko Lurraren Gailurraren barne onarturiko iraunkortasunerako Ekintza Programa batean du jatorria Tokiko iraunkortasunaren aldeko mugimenduak. Programa hau Agenda 21 bezala dugu ezaguna.

1994an Europar Hiri eta Herri Iraunkorren lehen Batzarra ospatzen da Aalborgen (Danimarka). Bertan, Iraunkortasuneranzko Europar hiri eta herrien Gutuna landu zen , Aalborgeko Gutuna bezala ezagunagoa dena landu zen. Dokumentu honetan ingurumenaren babesean udalbatzen garrantzizko papera azpimarratzen da batez ere.

Garai hartan laurogei udalerrik sinatu zuten Aalborgeko Gutuna, iraunkortasunerako herri mailako prozesu partehartzailea martxan jartzeko konpromisoa hartuz. Globalki pentsatu eta herri mailan jardutean legoke gakoa (“Mundua gogoan, jardun auzoan”). Iraunkortasunaren alde herri mailan lan egiteko konpromiso hau europar herri eta hiri askok hartu du geroztik, gaur egun 2000 baino gehiago izanik Aalborgeko Gutuna sinatu eta Hiri eta Herri Iraunkorren europar kanpainari atxiki zaizkion hiri eta herriak, modu honetan berauen Tokiko Agenda 21 proiektuak martxan jarriz.

2004an, Aalborg+10 ospatu zen, iraunkortasunaren aldeko tokiko ekintza plana 10 urteren buruan berrikusteko aukera emanez, Agenda edo Programatik Ekintzara eta Aalborgeko Gutunetik Aalborgeko Konpromisotara igarotzeko helburu berriak ezartzeko aukera (Europa guztiko tokiko gobernuek elkarrekin burutzeko baterako konpromisoen multzoa), alegia.

Aalborg+10ko Konpromisoek Europa osoan egungo hiri-iraunkortasun ahalegina indartu, Tokiko Agenda 21 suspertu, eta iraunkortasuna (tokikoa eta globala) lortzeko helburu, estrategia eta ekintza berriak definitzea dute helburu.

Tokiko Ekintza Planen gauzapena bultzatzeko koordinazio eta lankidetza foro izateko helburuarekin UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea osatu zen, euskal udalerrietako Tokiko Agenda 21 proiektuak dinamizatuz alegia.

Markina-Xemein UDALSAREA 21eko kide da 2004ko abenduaz geroztik, Udaltalde 21 Lea-Artibaiko gainerako udalerriak bezala

Gaur egun UDALSAREA hiru Lurralde Historikoetako 37 Udaletxek, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila/IHOBEk, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) osatzen dute.

Prozesu hau Markina-Xemeinen 2.002ko Ekainean habiatu zen, Udaltalde 21 Lea-Artibaien baitan Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Mendexa eta Ondarroarekin batera, udalerriaren garapen iraunkorreranzko Ekintza Programa bat ezartzeko gogoetarako konpromisoa hartzean.

Modu honetan Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesua jarri zen habian, herritarren parte-hartze aktiboa bilatuz aipaturiko Agendako tokiko egitasmoetan. Era berean, bizi kalitate hobea eskainiko duen herri bateranzko epe luzeko programen eraketan egin da lan, ondasun naturalak mantendu, energia eta baliabideak aurreztu, eta tokiko ahalmen ekonomikoak garatuz.

Udaltalde 21 Lea-Artibaiko udalerriak prozesua Iraunkortasunerako Diagnostikoa burutuz hasi zuten.

Diagnostiko hau udalerriaren egoera ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren analisi bat egitean datza. Egungo egoera eta arazoak, puntu ahul eta sendoak eta etorkizunera begira diagnostikoa deskribatzeaz gain, helburuak, ekintza planak eta adierazleak proposatzen ditu. Azken hauek, Tokiko Agenda 21 prozesua eta udalerriaren iraunkortasuna neurtzea ahalbidetuko dute.

Diagnostiko hau oinarri hartuz, hemen aurkezten den dokumentuak analisi honi erantzuna ematen dioten helburu eta garatu beharreko ekintza multzoa jasotzen ditu, udalerriaren garapen iraunkorrago batetarantz aurrera egitea dutelarik helburu nagusia.

Helburuak eta hauek lortzeko proposaturiko ekintza multzoa, Markina-Xemeingo Agenda 21 prozesuko oinarrizko elementua den Markina-Xemeingo Iraunkortasuneranzko Tokiko Ekintza Plana deiturikoan jasotzen dira.

Dokumentu honen helburu nagusia Diagnostikoa eta jarduera helburuen arteko lotura ezartzea da, jarduera helburu hauen baitan lehentasunak erabakitzea, Ekintza Planaren edukien deskribapen zehatza egitea eta ezarpen prozesuaren jarraipena egiteko Iraunkortasun Adierazle Sistemaren aurkezpen eta deskribapena egitea.

Honen arabera, ondorengo ataletan banatzen da dokumentua:

### *DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA PLANERA (2. atala)*

Diagnostiko lortzeko buruturiko prozesuaren laburpena da. Bertatik ateratako ondorioak eta hauei loturiko esku-hartze helburuak azaltzen ditu. Helburu hauek Ekintza Planaren oinarria izango dira.

### *INGURUMEN EKINTZA PLANA (3. atala)*

Buruturiko prozesua deskribatzeaz gain, Markina-Xemeingo Tokiko Ekintza Planaren edukien deskribapen zehatza burutzen da, Ildo Estrategiko, Programa eta Ekintzen inguruko xehetasunak emanez.

### *JARRAIPEN PLANA (4. atala)*

Markina-Xemeingo Tokiko Agenda 21 prozesuaren jarraipena egiteko diseinaturiko Iraunkortasun Adierazle Sistemaren deskribapena azaltzen du. Sistema honen bidez, Ingurumen Ekintza Planaren garapen maila eta udalerriaren egoera balioztatu ahal izango dira urtez-urte.

## 2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA PLANERA

Egoeraren diagnostikoa 2.003an amaitu zen, Lea-Artibaiko udalerrietako egoera orokorra deskribatzeaz gain -eskualdeko ikuspegia- udalerri bakoitzeko diagnostiko zehatza burututz. Laburpen gisa, 2.004ko apirilean burututako diagnostikoaren ondorio nagusien laburpen bat jasoaz dibulgaziozko formatudun argitarapen bat burutu zen.

2.004ko maiatzaz geroztik, diagnostikotik habitatuz, fase berri bati ekin zitzaion, hau berrikusi eta bertatik ateratako ondorio nagusiak identifikatuz.

Ondorio hauetatik abiatuta helburuak identifikatu eta lehenesteari ekin zitzaion. Helburuok bete ahal izateko 4-5 urteko horizontedun ekintzak jasotzen dituen Ekintza Plana diseinatu da.

Prozesu hau arlo ezberdinei dagozkien Mahai Teknikoen osaketarekin hasi zen, prozesuan parte hartzen duten udaletxeko kudeaketa alor ezberdinetako arduradun tekniko eta politikoak bilduz, Tokiko Agenda 21en baitan jasota dauden ondoko gaiak lantzearren:

| |
|---|
| Ekonomia eta gizarte arloa |
| Ingurune fisikoa eta sistema naturalak |
| Planeamendua |
| Mugikortasuna, garraioa eta irisgarritasuna |
| Baliabideen kudeaketa eta erabilera: ura eta energia |
| Hondakinen ekoizpena eta kudeaketa; lurzoru poluituak |
| Kutsadura atmosferiko eta akustikoa |
| Jarduera ekonomikoen ingurumen eragina |
| Ingurumen arriskua |
| Herritarren sentikortzea eta partehartzea |
| Udal ingurumen kudeaketa |

Tokiko Agenda 21en landutako gaiei ekiteko Lan Mahai bat osatu zen; osaketa ondokoa izan zen:

| **LAN MAHAIA** |
|---|
| Alkatea |
| Zinegotziak |
| Udal idazkaria |
| Udal aparejadorea |
| Udaltzaina |
| Turismo Bulegoko teknikaria |
| Lea-Artibaiko Amankomunazgoko Ingurumen teknikaria |

Mahai teknikoaren lana amaitutakoan, herritarrek diagnostikotik ateratako ondorio eta proposaturiko helburuen inguruan euren ekarpenak egiteko aukera izan zuten, horretarako 2.005eko otsailean Herritarren Partehartze Foroa burutu zelarik.

Jarraian, burututako lan eta aterako ondorioen inguruko xehetasunak jasotzen dira.

## 2.1. Diagnostikoaren berrikuspena

Buruturiko diagnostikotik abiatuta Mahai Tekniko eta Foroaren lana ateratako ondorioak balidatu eta tokiko iraunkortasunaren ikuspuntutik esanguratsuenak identifikatzean datza, esku-hartze helburuak proposatzeko oinarri izan daitezen.

## 2.2. Helburuak

Ingurumenari buruzko Ekintza Planaren helburuak definitzeko Iraunkortasuna Lortzeko Bidean Europako Hirien Gutunean (Aalborg-eko Gutuna) agertzen diren printzipio gidariak hartzen dira oinarritzat; printzipio hauek Aalborg+10ean berrikusi ziren Iraunkortasunerako bidean ondoko konpromisoak definituz:

1. *Gobernatzeko moduak:* demokrazia partehartzailearen bidez erabakiak hartzeko prozedurak bultzatu.
2. *Iraunkortasunaren aldeko udal kudeaketa:* diseinutik hasi eta ezartze eta ebaluazio fasera arte udal kudeaketa programa eraginkorrak prestatu.
3. *Natur ondasun komunak:* guztiok natur ondasun komunak erabiltzeko aukera izan dezagun hauek babestu, mantendu eta bermatu.
4. *Kontsumo eta bizimodu arduratsuak:* baliabideak tentuz eta modu eraginkorrean erabiltzea erraztu eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorra bultzatu
5. *Hirigintza diseinatu eta planifikatzea:* hirigintza diseinatzen eta planifikatzen eginkizun estrategikoa izan eta ingurumen, gizarte, ekonomia, osasun eta kultur gaiak guztion onerako bideratu.
6. *Mugikortasuna hobetu eta zirkulazioa murriztea:* garraioa, osasuna eta ingurumena bata bestearen mende daudela onartu eta mugikortasun iraunkorreko ereduak irmotasunez sustatzeko konpromisoa hartu.
7. *Osasunaren aldeko tokiko ekintza:* herritarren osasuna eta ongizatea zaindu eta areagotu.
8. *Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra:* tokiko ekonomia bizia izan dadin eta enplegua sor dezan lortu ingurumenari kalterik egin gabe.
9. *Berdintasuna eta justizia soziala:* komunitate integratzaile eta solidarioak bermatu.
10. *Tokian tokikotik mundu globalera:* bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra eta klima babesteko erantzukizun globala gure gain hartu.

Iraunkortasuneko printzipio orokor hauek Ingurumen Diagnostikoan jasotako gaiekin kontutan izateak udalerrirako helburu espezifikoak definitzea garamatza; helburuok, hierarkizatu ondoren, Ekintza Plana osatzeko beharrezko ekintzak egituratzeko oinarri izango dira.

## 2.3. Diagnostikoaren ondorioak eta helburuen proposamena

Ondorengo orrialdeetan, taula moduan, Diagnostikotik ateratako ondorioak eta proposaturiko helburuak aurkezten dira gaiez-gai.

| SOZIOEKONOMIA | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **DEMOGRAFIA**<br><br>• Eskualdeko joera jarraituz, 1990 eta 2000 urteen artean Markinako biztanle kopuruak behera egin du.<br>• Landa Eremuetan eman da biztanleriaren beherakadarik handiena.<br>• Biztanleriaren zahartzea nabarmena da.<br>• Biztanle dentsitatea baxua da: 75 biztanle/km$^2$. | • Jaiotzak sustatu. |
| **ETXEBIZITZA**<br><br>• 1998ko AASSetako aurreikuspenak: 700 etxebizitza egoitza lurzoruan, erdiak, gutxi gorabehera, sare urbanoak dituen hutsuneak betetzeko balioko luketelarik. Etxebizitza batzuk dentsitate txikikoak izatea aurreikusten da.<br>• Gazte jendea lana egiten duen herrietara joan izan da bizitzera (Durango...), baino gaur egun joera hau eten egin da: autoa hartzen dute lanera joateko eta herrian bertan gelditzen dira bizitzen.<br>• Markina-Xemeinen 370 baserri inguru daude, eta horiek zaharberritu eta mantentzeko diru-laguntzak ematen dira.<br>• Tutoretzapeko pisuak aurreikusita daude. | • Bertan geratu nahi duten gazteen etxebizitza beharrak ezagutu eta irtenbideak eman.<br>• Tutoretzapeko etxebizitzak sustatu.<br>• Baserri handiak aprobetxatu etxebizitza funtzioarekin. |

| SOZIOEKONOMIA | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **HEZKUNTZA**<br><br>• Eskaintza zabala da: Haur eta Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa, eta Unibertsitate ikasketak.<br>• Lanbide-heziketari dagokionez, Markina-Xemeinen kokatutako Lea Artibai Ikastetxeak duen garrantzia nabarmentzekoa da. Etengabeko eta lanerako prestakuntza-ekintzak eskaintzen ditu, baita lan-poltsa eta lantokietako prestakuntza ere. | • Lea Artibaiko C.I.P.-arentzako kokaleku berri bat bilatu<br>• Bizitza guztian zeharreko hezkuntza (ez formala) bultzatu: sentikortze kanpainak.... |
| **OSASUNA**<br><br>• Zerbitzuak:<br>- Markina-Xemeingo zentroa. Larrialdi zerbitzurik (gauez) ez da eskaintzen.<br>- Anbulantzia zerbitzua (ez medikuduna).<br>- 2 farmazia.<br>• Kontsulta espezializatuetarako, Gernika edo Durangoko anbulatorioetaraino jo behar izaten dute herritarrek. | • Osasun zerbitzua hobetu. |
| **KULTURA, KIROLA ETA AISIA**<br><br>• Eskualdeko berezko kultur balioak zein balio tradizionalak neurri handi batean gorde egin dira.<br>• ESPERANTZA Kultur Proiektua martxan da.<br>• Kirol arloan pilotak tradizio handia du Markina-Xemeinen.<br>• Elkarte ehundura zabala da.<br>• Arazo nagusi bezala koordinazio falta aipatzen da, jarduera ezberdinen arteko lotura eta arduradun baten eza. | • ESPERANTZA Kultur Proiektua aurrera eraman.<br>• Kultur arloan koordinazioa bilatu.<br>• Ekipamenduak egokitu/ugaritu. |

| SOZIOEKONOMIA | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **EUSKARA**<br>• 2001ean eskualdeko biztanleen %86 eta Markinakoen %89 euskalduna zen.<br>• Udalerria ez da UEMAko kide.<br>• Biztanleriaren gehiengoak bere eguneroko jardunean euskara erabiltzen du.<br>• Euskararen erabilera normalizatzeko Markina-Xemeingo Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatu du. | • Euskara maila mantendu.<br>• Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurrera eraman. |
| **AZPIEGITURAK**<br>• Oiz mendiko parke eolikoa dela eta telebista seinalea jasotzeko arazoak sortu dira; Udala arazoa konpontzeko gestioak egiten ari da.<br>• Berdeguneak zaindu egin beharko lirateke. | • Oiz Mendiko Parke Eolikoak telebista seinalean eragindako kalteei irtenbidea eman.<br>• Hiri ekipamenduak hobetu (berdeguneak, industria poligonoen inguruak...). |
| **GIZARTE ZERBITZUAK**<br>• Zerbitzuak: Oinarrizko Gizarte Unitatea, Caritas, 3. adinekoentzako egoitza (San Roke), jubilatuen etxea, Emakumearen Aholkularitza Juridikorako Zerbitzua.<br>• Eguneko Zentro bat eraikitzen ari dira.<br>• Lea Artibaiko udalerrietako gizarte-arazo nagusiak, biztanleriaren zahartzeari -ondorioz, laguntza-beharrizanak areagotu egiten dira-, buru-gaixotasunei eta inmigrazioari lotuta daude.<br>• Orokorrean eskualde mailako gizarte zerbitzuen beharren azterketa bat egin eta plangintza bat diseinatzea falta da. | • Eskualde mailako beharrak aztertu eta zerbitzuak antolatu.<br>• Gizarte zerbitzuen eskaintzaren berri eman. |

| SOZIOEKONOMIA | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **ETORKINAK**<br><br>• Beti egon izan dira etorkinak Markinan, baina 2004ean asko igo da kopurua (dena den herriz-herri ibiltzen dira).<br>• Integrazio arazorik ez da izaten. Bertokoek dituzten arazo berak (etxebizitza...) eta paperak lortzea dira pairatzen dituzten arazo nagusiak.<br>• Etorkinentzako Arreta Zerbitzua eskaintzen du Mankomunitateak. | • Etorkinen integrazioa eta elkarbizitza sustatu. |
| **JARDUERA EKONOMIKOAK**<br><br>**<u>Lehen sektorea</u>**<br><br>• Sektore hau beherakada handia jasaten ari da eskualdean. | • Lehen sektorea sustatu, nekazaritza/abeltzaintza ekologikoaren potentzialtasuna aprobetxatuz. . |
| **<u>Industria</u>**<br><br>• Industria da, gaur egun, eskualdeko ekonomiaren bultzatzaile nagusia.<br>• Sektore gutxi batzuk dute indar nagusia eta konpetentzia gero eta handiagoa da, aniztasun falta nabaria da.<br>• ESPERANTZA eraikinean enpresa mintegia sortzea aurreikusita dago. | • Industria lurzoru berria izendatu.<br>• Zentro Teknologikoa eta Enpresa Mintegia sortu ESPERANTZA eraikinean. |
| **<u>Hirugarren sektorea</u>**<br><br>• Herrian denda asko dagoen arren zentro komertzial handiek arrakasta gehiago dute.<br>• Lea Artibain turismoa batik bat kostaldearekin lotzen den arren -batez ere Lekeition-, apurka-apurka garrantzi handiagoa hartzen ari da barnealdeko herrietan, landa-turismoagatik. | • Turismo kulturala sustatu, Markinako pilotarien historia zabalduz.<br>• Bertako komertzio txikia indartzearren dendarien arteko kohesioa sustatu.<br>• Azokak sustatzen jarraitu. |

| SOZIOEKONOMIA | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **LANA**<br><br>• Eskualde mailan langabezia tasa %4,2koa da (2002) beheranzko joera ageri duelarik 1998 urteaz geroztik.<br>• Lanaren kalitatea hobetu beharreko arlo nabarmena da: aldi baterako lan kontratuak gorakada handia jasaten ari dira. | • Pertsona ororen lan munduratzea erraztu eta aukera berdintasuna sustatu.<br>• Eskualde mailan enpleguaren sustapenean dirauten eragileen arteko koordinazioa hobetu. |
| **EGITASMOAK**<br><br>• Eskualdeko Plan Estrategikoa (2005erako ekintza plana). | • Lanaren sustapenerako egitasmo guztien arteko koordinazioa lortu (eta Agenda 21en baitan integratu). |

| PARTAIDETZA ETA KOMUNIKAZIOA | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **PARTAIDETZA**<br><br>• Elkarte kopurua esanguratsua da. | • Herritarrek udalerriko ekimenetan duten partehartzea areagotu. |
| **KOMUNIKAZIOA**<br><br>• Egun erabiltzen diren bideak:<br>    o Bandoak<br>    o Hitza<br>• Beharrezkotzat jotzen da Udala eta biztanleriaren arteko komunikazioa eta informazio elkartrukerako bideak hobetu eta hedatzea. | • Udala eta herritarren arteko komunikazioa hobetu. |

| INGURUNE NATURALA | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **ELEMENTU ESANGURATSUAK**<br><br>• Udalerriko baso azalera: %87 koniferoak (intsinis pinua batez ere) eta %13 hostozabalak (artea eta baso atlantikoa batez ere).<br>• Mendi publikoak 220 hektarea hartzen ditu. Artezko irlatxo bat dago bertan pinu tartean.<br>• Oiz mendia EAEko Naturgune Garrantzitsuen Katalogo Irekiaren baitan dago.<br>• Artibai ibaia Natura 2000 sarearen baitan dago eta LIC izendatua izan da.<br>• Udalak Murga basoa -lorategi pribatua- ireki nahi luke herri probetxurako. | • Interes berezia duten elementuak babestu eta ezagutzera eman.<br>• Ibai eta erreken gutxiengo emari ekologikoari eutsi.<br>• Bertoko landaredia sustatu lurzoru publikoan.<br>• Murga Basoa herri probetxurako ireki. |
| **INGURUMEN ARRISKUA**<br><br>• 1997-1998 urteko Markina-Xemeingo Udal Larrialdi Plana berritu egin da.<br>• Azken hamarkadan 18 baso sute izan dira. | • Udalerriko Larrialdi Plana aurrera eraman. |

<table>
<tr><th colspan="2">MUGIKORTASUNA, GARRAIOA ETA IRISGARRITASUNA</th></tr>
<tr><th>DIAGNOSIA</th><th>HELBURUAK</th></tr>
<tr><td>ERREPIDE SAREA<br>• Orokorrean Lea Artibaiko errepide sarea eskastzat jo daiteke (bide tarte estuak, malda handiak...).<br>• Errepide sare nagusia:<br>o Durango-Markina-Ondarroa: BI-633.<br>o Gernika-Munitibar-Markina: BI-2224.<br>o BI-3448: Markina-Aulesti.<br>• Markinako sarreran biribilgune bat egitea aurreikusten da.</td><td>• Markinako sarreran biribilgunea eraiki.</td></tr>
<tr><td>GARRAIO PUBLIKOA<br>• Zerbitzuak: BIZKAIBUS Bilborantz eta PESA Donostiarantz.<br>• Azken urteotan garraio publikoa asko hobetu da. Autobusen maiztasuna asko handitu da.<br>• Eskualdeko herrien arteko garraioa berrantolatu nahian dihardu Mankomunitateak.</td><td>• Garraio publikoa hobetu eta bere erabilera sustatu.</td></tr>
<tr><td>GARRAIO PRIBATUA<br>• Ibilgailu kopuruak goranzko joera ageri du (2001ean bi biztanletik batek autoa zuen).<br>• Autoaren erabilera altua da.<br>• Badago nahikoa aparkaleku.</td><td>• Herrigunean abiaduraren kontrol zorrotza burutu</td></tr>
</table>

| MUGIKORTASUNA, GARRAIOA ETA IRISGARRITASUNA | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **OINEZKO ETA BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUNA**<br><br>• Markina-Xemeingo Udalak bidegorri berriak eraiki eta peatonalizazio proiektuarekin jarraitzeko asmoa du.<br>• Mankomunitateak bizikletaren erabilpena bultzatu/errekuperatu nahi du.<br>• Trafiko Azterketa bat burutu da. | • Oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna sustatu.<br>• Trafiko Azterketan planteatzen diren ekintzak gauzatu. |
| **IRISGARRITASUNA**<br><br>• Markina-Xemeingo Irisgarritasun Plana burutu da. | • Udalerriko Irisgarritasun Plana bete. |

| INGURUMEN BEKTOREAK | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **URA**<br><br>**<u>Hornidura eta kontsumoa</u>**<br><br>• Udalerria 4-5 mendi iturburutatik hornitzen da.<br>• Auzoetan hartune propioak dituzte.<br>• Larruskain auzoan hornidura arazoak izaten dira.<br>• 2000 urtean ur kontsumo totalaren %75 etxebizitzetakoa izan zen, %22 industria sektorekoa, eta %3 udal zerbitzuetakoa.<br>• Ur termalak daude herrian. | • Ur hornidura ziurtatu eta hobetu.<br>• Ur kontsumo eraginkorra sustatu.<br>• Udalerriko ur termalei erabilera eman. |

<table>
<tr><th colspan="2">INGURUMEN BEKTOREAK</th></tr>
<tr><th>DIAGNOSIA</th><th>HELBURUAK</th></tr>
<tr><td><u>Arazketa</u><br><br>• Udalerriko Ur Zikinen Araztegia (Iruzubieta) 2000 urtean hasi zen lanean. Hala ere, udalerriko etxebizitza guztiak ez daude bertara lotuta.<br>• Sarera lotuta ez dauden etxebizitza eta baserrietako hondakin-ur gehienak ez dira saneatzen -hobi septiko gutxi batzuk existitzen dira-.</td><td>• Ur zikinen saneamendu sarea hobetu eta hedatu.</td></tr>
<tr><td>HONDAKINAK<br><br>• Hiri Hondakinen Solidoen produkzio indizeak gorantz egin du azken urteetan.<br>• 2001ean birziklapen tasa %15ekoa izan zen. Azken urteotan gaika bildutako hondakin kopuruak gora egin du.<br>• Kudeatutako hondakin arriskutsuen kopuruak gora egin du azken urteetan.<br>• Olio eta ehunen gaikako bilketa zerbitzurik ez dago.<br>• Etxeetako hondakin arriskutsuak jasotzeko bi Garbigune daude eskualde mailan.</td><td>• Hiri hondakinen ekoizpena txikitu.<br>• Hondakin organikoen kudeaketa Amankomunazgoaren esku utzi.<br>• Hiri hondakinen bilketa zerbitzua hobetu.<br>• Hiri hondakinen kudeaketako azpiegituren kalitatea hobetu.<br>• Nekazaritza/abeltzaintzako hondakinak behar bezala kudeatu.</td></tr>
<tr><td>ENERGIA<br><br><u>Hornidura eta kontsumoa</u><br><br>• Energia elektrikoaren kontsumoak %13 egin du gora 1.998 eta 2.000 urteen artean.<br>• 2.000. urteko kontsumoa:<br>    o Egoitza: %32,41<br>    o Industria: %47,31<br>• Industria poligonoa handitu egin denez beste argindar linea bat ezarriko da.<br>• Gas naturalaren banaketa sarea dagoeneko sartuta dago.</td><td>• Energia kontsumoa murriztu.<br>• Eraginkortasun energetikoa sustatu.</td></tr>
</table>

| INGURUMEN BEKTOREAK | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **<u>Energia berriztagarriak</u>**<br><br>• Orokorrean energia berriztagarrien garapen maila baxua da Lea Artibain.<br>• Markinan 2 minizentral hidroelektriko (Arizmendi eta Plazakola) daude. | • Energia berriztagarriak sustatu. |
| **ATMOSFERA ETA AKUSTIKA**<br><br>• Airearen kalitatea neurtzeko estaziorik ez dago eskualdean.<br>• Ez dago zarataren inguruko Ordenantzarik.<br>• Zarata arazorik nabarmenenak: Motorrak eta ostalaritza. | • Aire kalitatea kontrolatu.<br>• Biztanleria aire kutsadura eragiten duten jardueren inguruan informatu eta sentikortu (autoaren erabilera, energia-kontsumoa, etab.). |

| INGURUMEN ERAGINA DUTEN JARDUERAK | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **INGURUMEN ERAGINA DUTEN JARDUERAK**<br><br>• Markina-Xemeinen jarduera lizentziarik gabe funtzionatu izan duten hiru harrobi daude.<br>• ISO 14001 ziurtagiridun 4 industria-establezimendu zeuden 2001ean eskualdean (bat bera ere ez Markinan).<br>• Herrian potentzialki poluitutako lurzorurik ez dago. | • Jardueren ingurumen eraginaren kontrola eta jarraipena burutu (Udalak).<br>• Jadanik ustiatzen ez diren harrobiak berreskuratu. |

| **UDAL INGURUMEN KUDEAKETA** | |
|---|---|
| **DIAGNOSIA** | **HELBURUAK** |
| **UDAL INGURUMEN KUDEAKETA**<br><br>• Markinako Udal Kiroldegian Ekoscana egin da.<br>• Argiztapen publikoan kontsumoa jaisteko sistemak ezarri dira. | • Iraunkortasun irizpideak barneratzen dituen udal kudeaketa sustatu. |

# 3. TOKIKO EKINTZA PLANA

Markina-Xemeingo Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana aurreko fasean ezarritako helburuetatik abiatuta garatzen da. Helburu bakoitzari dagokion lehentasuna eman ondoren, Planaren helburu estrategikoak zehaztu dira, Ildo Estrategiko bezala hain zuzen ere; horiek izan dira Ekintza Planaren ardatz egituratzaileak.

Lan fase honen helburua Tokiko Ekintza Planaren diseinua da, bertoko ekintzak definitu eta ezaugarrituz, hau da, ekintza bakoitzaren exekuzio programa zehaztuz.

Tokiko Ekintza Plana burutzeko, ondoko Lan Mahaiak jardun du lanean:

| HIRIGINTZA ETA INGURUMENA |
|---|
| Hirigintzako zinegotziak |
| Udal arkitektoa |
| Udal aparejadorea |
| Lea-Artibaiko Amankomunazgoko ingurumen teknikaria |

Mahaien funtzioa ezarritako helburuak oinarritzat hartuz, 5 urteko gehieneko epe batean aurrera eramateko asmoa dagoen Ekintzak zehaztea izan da, Planaren helburuak 2010 urteari begira zehaztuz eta lehentasunak ezarriz. Ekintzen inguruan landutako informazioa, (deskribapen fitxak, epeak, aurrekontuak, finantziazioa, arduradunak...) MUGI sisteman sartuko da epe laburrean. Sistema hau, Tokiko Ekintza Planaren kudeaketa errazteko IHOBEk Udalsareako kide diren udalerrien eskura jarritako udal kudeaketarako informatika tresna da. Aipatzekoa da tresna honek iraunkortasunerako adierazle multzo bat barneratzen duela, zeina Markina-Xemeingo adierazle sisteman aldi baterako sartu ahal izateko aztertu egin beharko den.

Mahaien metodologia ondokoa izan zen: aipaturiko bilera bakoitzean, partaideek, Mahai bakoitzari zegokion gai multzoan, proposaturiko helburuak lortzera zuzendutako ekintzak zehaztu zituzten eta zenbait kasutan baita ezaugarritu ere, programa eta ekintza zehatzak definituz.

Mahai Teknikoen lana amaitutakoan, 2.005eko ekainean, Herritarren Partehartze Foroa burutu zen, non herritarren ekarpenak jaso ziren, Ekintza berrien proposamena edo lehentasunak ezartzeari dagokionean.

## 3.1. Ekintza Planaren egitura eta edukiak

### 3.1.1. Egitura

Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Planaren egitura **Ildo Estrategiko**en definizioan oinarritzen da, hauek baitira Planari erantzuna eman nahi dioten helburu estrategikoak.

Ildo estrategiko bakoitzak helburu espezifiko batzuk ditu, **Jarduketa Programa** moduan adierazita hain zuzen ere. Aipatu programak **Ekintza** multzo batean gauzatzen dira, eta ekintza horiek definitzerakoan xede dituzten helburu orokorrak eta bereziak (lerroak eta programak), deskribapena, parte hartzen duten entitateak, koste ekonomikoa eta pertsonala, finantziazio iturriak, eta esleitutako lehentasun maila hartzen dira kontuan.




*3.1. irudia: Ekintza Planaren egitura*

### 3.1.2. Ekintzen oinarrizko ezaugarriak

Ekintzak dira Ekintza Plana egituratu eta definitzen duten oinarrizko unitateak, eta horietako bakoitzak ezaugarri batzuk ditu ondorengo orrietan azaltzen den legez.

Ekintza Planerako erabili den Ekintzaren kontzeptua zentzu zabalean ulertu behar da, mota oso desberdineko ekintzak barneratzen baitira; ekintzok ondoren adierazten den moduan sailka daitezke:

- **Kudeaketa**

Iraunkortasunaren bidean aurrera egitea ahalbidetzen duten udal kudeaketako hainbat ekintza.

_Adibideak:_

- *Motorrek eragindako zarata kontrolatu eta zaindu.*

- **Hezkuntza eta Partehartzea**

Iraunkortasunerako hezkuntzarekin eta herritarren nahiz toki komunitateko aktoreen parte hartzearekin zerikusia duten ekintzak.

_Adibideak:_

- *Hondakinen ekoizpena eta kudeaketa egokiaren inguruan herritarrak sentikortzeko kanpainak burutu.*

- **Araudia**

Arau berriak sartu edo daudenak aldatzea ingurumenaren gaineko eragina mugatzeko, ingurumenaren kudeaketa hobetzeko edo iraunkortasunaren bidean dauden prozesu eta jarrerak bultzatzeko, ingurumen kostuak edo onurak barnera daitezen.

_Adibideak:_

- *Foru Aldundiarekin elkarlanean “Ehizarako babes guneak” izendatu.*

- **Zerga arloa**

Iraunkortasunaren aldekoak diren prozesu eta jarrerak hobesteko eta ingurumen kostu eta onurak barneratzeko zerga arloan aldaketak egitea.

<u>*Adibideak:*</u>

- *Hirigune historikoan komertzioak berritu eta berriak sortzea sustatu exentzio fiskalaren bidez.*

- **Ekipamendu eta azpiegiturak**

Ekipamenduen erosketa edo azpiegituren exekuzioarekin loturiko ekintzak.

<u>*Adibideak:*</u>

- *Udalerriko zenbait edukiontzi lurperatu.*
- *Bidegorri Sarea hedatu.*

- **Iraunkortasun irizpideak barneratzea**

Ingurumen irizpideekin bat datozen ekintzak aurrera eramatea udal kudeaketarekin edo tokiko administrazioaren funtzionamenduarekin zerikusia duten gaietan.

<u>*Adibideak:*</u>

- *Udaletxeko erosketa eta kontratazioetan iraunkortasun irizpideak barneratu.*
- *Udal erakundeetan ingurumen kudeaketako irizpideak barneratu: Udal instalazio batean Ekoscana burutu*

- **Azterketak**

Iraunkortasunaren bidean garrantzitsuak diren arlo, prozesu edo arazoak hobeto ezagutu eta balioesteko beharrezko azterketak egitea, edo Ekintza Planak guztiz zehaztu ezin ditzakeen ekintzak definitzea.

<u>*Adibideak:*</u>

- *Herritarrek zein kirol burutu nahi duten aztertu, eskaerok aseko dituzten jarduketak antolatuz.*
- *Udalerriko interes naturaleko eremuan identifikatu eta zerrendatu.*

# EKINTZEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO ERABILTZEN DIREN KONTZEPTUEN DESKRIBAPENA

| KONTZEPTUA | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| **Kodea** | Ildoari, programari eta ekintzari dagozkion hiru digituz osaturiko zenbaki kodea. |
| **Ekintza** | Ekintzaren zenbaki eta izenburua. |
| **Lerroa** | Ekintzari dagokion lerro estrategikoaren zenbaki eta izenburua. Ekintzaren helburu orokorra jasotzen du. |
| **Programa** | Ekintzari dagokion jarduketa programaren zenbaki eta izenburua. Ekintzaren helburu espezifikoa jasotzen du. |
| **Deskribapena** | Ekintzaren oinarrizko definizio eta karakterizazioa. |
| **Exekuzio/ezarpen epea** | Ekintza burutu (ekintza puntuala bada) edo ezartzeko (denboran modu jarraian edo periodikoan luzatuko den ekintza baten kasuan) gehienezko epea. |
| ***Motza (0-1 urte)*** | Exekuzio/ezarpen epea motza dela adierazten du (0-1 urte artean). |
| ***Ertaina (1-3 urte)*** | Exekuzio/ezarpen epea ertaina dela adierazten du (1-3 urte artean). |
| ***Luzea (3-5 urte)*** | Exekuzio/ezarpen epea luzea dela adierazten du (3-5 urte artean). |
| **Maiztasuna** | Ekintza burutzeko proposatzen den maiztasuna. Ekintza etengabe egin behar denean "**jarraitua**" hitzarekin adieraziko da. |
| **Lehentasuna** | Hainbat arrazoirengatik proposatutako ekintza lehentasunezkoa ote den adierazten du, funtsezko alderdi batean eragiten duelako, lehenbailehen ezartzea komeni delako edo ekintza hori burutzeak hainbat ondorio onuragarri izango dituelako. |

Oharra: Ekintzen ezaugarriei dagozkien datuak osatzeko IHOBEk helburu horrekin sortutako "MUGI" euskarri informatikoa erabiliko da.

| KONTZEPTUA | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| **Aurreikusitako kostua (€)** | Ekintza burutu edo ezartzeko aurreikusitako kostua. Pertsonalaren kostuak sartu ala ez erabakiko da, edo beharrezkoa izanez gero, hori erabakitzeko berariazko azterketa bat egingo da. |
| **Erakundeak** | Ekintzaren exekuzio eta ezarpenean parte hartuko duten erakundeak. |
| **Finantziazioa** | Ekintzaren finantzaketa ekonomikoan parte hartu behar duten edo parte har dezaketen erakundeak. |
| **Adierazleak** | Zuzenean edo zeharka ekintzarekin zerikusia duen/duten Iraunkortasunaren Adierazle Sistemako adierazlea edo adierazleak. |
| **Exekuzioaren kontrola** | Ekintzaren garatze edo ezartze maila adierazten du: Hasi gabe, hasita, aurreratua, amaitzen, amaitua. |
| ***HASI GABE*** | Ekintzarekin lotutako jarduerarik ez da hasi. |
| ***HASITA*** | Ekintzaren hasierako faseak burutu dira (proiektu fasea, parte hartu behar dutenekin elkarrizketak hastea...). |
| ***AURRERATUA*** | Ekintzarekin lotutako jarduerak burutzen ari dira eta dagoeneko hasierako faseak gainditu dira. |
| ***AMAITZEN*** | Kategoria hau bi kasu hauetan erabiliko da: inbertsioak ekintzaren exekuzio kontrolaren urtean amaitzen direnean, edo exekuzio kontrola baino lehen ezartzen hasi den exekuzio periodiko edo jarraituko ekintza bat denean. |
| ***AMAITUA*** | Kategoria hau erabiliko da inbertsioak exekuzio kontrolari dagokiona baino urte bete lehenago amaitu direnean edo ekintza horren bidez konpondu beharreko arazoa desagertu egin denean. |

### 3.1.3. Ekintzen ezaugarri ekonomikoak eta horiek aurrera eramateko ardura

Proposatutako ekintzak eta dagozkien gaiak hain desberdinak izanik, kostuen esleipen motak ere desberdinak dira; eta horri dagokionez, honako kasu berezi hauek hartuko dira kontutan:

- **Udaleko giza baliabideen kostuak bakarrik dituzten ekintzak**

Udalak dauzkan giza baliabideen beharra horren txikia eta puntuala izateagatik denbora kostu handirik ez dutenak, eta beraz, egungo kontratazio ordutegiaren erregimenean aldaketarik eragiten ez dutenak; beste aukera bat izango litzateke beste ekintza baterako kontratatu diren giza baliabideetara jotzea, eta kasu horretan, kontabilitatea bikoitza izango litzateke.

*Adibidea: Hornidura uren kalitatearen analitika eta kontrola burutzen jarraitu.*

- **Kosturik gabeko ekintzak**

Beren ezaugarriengatik inolako kostu ekonomiko zuzenik ez duten ekintzak, edo oso kostu txikia dutenak.

*Adibidea: Iraunkortasun irizpideak barneratu udal kontratazio eta erosketetan.*

- **Zehaztu gabekoa**

Euren dimentsioa dela eta proiektu tekniko edo berariazko azterketa ekonomiko bat behar duten ekintzak.

*Adibidea: Bidegorri Sarea garatu.*

Ekintza bakoitzari lotuta ekintza horren finantzaketan parte har dezakeen erakunde multzo bat agertzen da. Erakundeen inplikazio finantzarioa lortzea da hain zuzen ere Udalak Iraunkortasunaren Ekintza Plana kudeatzeko lortu behar duen oinarrizko alderdietako bat.

# 3.2 LERRO ESTRATEGIKOEN LABURPENA, PROGRAMA ETA EKINTZAK

MARKINA-XEMEINGO TOKIKO AGENDA 21

# LERRO ESTRATEGIKOAK. MARKINA-XEMEINGO INGURUMEN EKINTZA PLANA

**LE1. Udalerriko ekonomiaren sustapena bultzatu eta herritarren ongizatea bermatu.**

**LE2. Etxebizitza eta oinarrizko zerbitzuak bermatu.**

**LE3. Hiri ingurunea eta ingurumen zerbitzuak hobetu.**

**LE4. Herritarren mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase.**

**LE5. Herritarrekiko komunikazioa eta herritarren sentikortze eta parte-hartzea hobetu.**

**LE6. Bioaniztasuna eta paisaia babestu eta udalerriko gune eta elementu esanguratsuak ezagutarazi.**

**LE7. Iraunkortasun irizpideak txertatu udal kudeaketan.**

## LE1. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA BULTZATU ETA HERRITARREN ONGIZATEA BERMATU

### P.1.1. Udalerrian dibertsifikazioa bilatuz, enpresa ekimen berriak babestu eta sustatzeko programa

E.1.1.1. Eskualde mailan jarduera ekonomikoak mantendu eta erakartzeko lurzoru eskaintza nahikoa eta erakargarria bermatzearren dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa).

E.1.1.2. Eskualde mailan aukera eta enpresa ekimen berriak sustatzearren dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa).

E.1.1.3. Eskualde mailan egungo enpresa jardueren konpetitibotasuna sostengatzearren dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa).

E.1.1.4. Eskualde mailan elikagaien industriaren garapena sustatzearren dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa).

E.1.1.5. Industria lurzoru gehiago eskaini.

E.1.1.6. Zentro Teknologikoa eta Enpresa Mintegia sortu ESPERANTZA eraikinean.

### P.1.2. Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa

E.1.2.1. Eskualde mailako aktibo estrategiko gisa Ondarroako portuaren berrikuntza modu solidarioan sostengatzeko dauden ekintzak garatu. (eskualde mailakoa).

E.1.2.2. Nekazaritza ekologikoko ustiapenak sortzeko formazioa eman eta hauek monitorizatu. (eskualde mailakoa).

E.1.2.3. Nekazaritza Ekologikoko sare baten sorrera bultzatu (eskualde mailakoa).

E.1.2.4. Baserritar bokazioa duten gazteei erraztasunak eman eta behar dituzten baliabideak eskaini. (E.1.2.9 ekintzarekin erlazionatua) (eskualde mailakoa).

E.1.2.5. Arrantzarako bokazioa duten gazteei erraztasunak eman eta behar dituzten baliabideak eskaini. (eskualde mailakoa).

E.1.2.6. Bertako eta kalitatezko produktuen kontsumoa sustatu eta zirkuitu komertzialak landu. Jatetxe eta bertako produktuen ekoizleen arteko elkargo bat sortzeko aukerak aztertuz. (eskualde mailakoa).

**<u>LE1.</u> UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA BULTZATU ETA HERRITARREN ONGIZATEA BERMATU**

E.1.2.7. Eskoletako jangeletan bertako produktuetan oinarritzen den menua eskaintzeko aukerak aztertu (eskualde mailakoa).

E.1.2.8. Baserri jarduerarekiko osagarriak diren jarduerak –nekazal turismoa, landa turismoa- sustatu. (eskualde mailakoa).

E.1.2.9. Eskualdean AGROALDEA baten ezarpena sustatu. (eskualde mailakoa).

E.1.2.10. Baso-ziurtagiri iraunkorrari buruzko informazioa zabaldu eta ezarpena sustatu, ezarritako adierazleen betetzea bermatuz. (eskualde mailakoa).

**P.1.3. Udalerrian merkataritza sustatu eta garatzeko programa**

E.1.3.1. Eskualdeko azoka arruntak eta hauetan bertakoak diren produktuak saltzeko suspertuko dituen Plan bat burutu. Eskaintza gaur egungo beharretara egokitu. (eskualde mailakoa).

E.1.3.2. Udalerriko merkataritza sektorea berpiztearren dendarien arteko kohesioa sustatzeko formulak aztertu.

E.1.3.3. Udalak eta Mankomunitatearen artean antolatutako azoka bereziak sustatzen jarraitu

**P.1.4. Udalerrian turismoa sustatu eta garatzeko programa**

E.1.4.1. Turismoa Sustatzeko Planetan ezarritako estrategia eta ekintzetan iraunkortasun irizpideak barneratu eta garatu. (eskualde mailakoa).

E.1.4.2. Turismo zerbitzuaren antolamendua hobetu, kalitatezko kudeaketaren sistemak bultzatuz. (eskualde mailakoa).

E.1.4.3. Proiektu edota produktu berriak diseinatu eta gauzatu. Gaur egun hasitako proiektuak bukatu: Maria Errota, Bengolea. (eskualde mailakoa).

E.1.4.4. Turismo azpiegiturak ugaritu eta hobetu: seinaleztapen-informazio tresna berriak finkatu. (eskualde mailakoa).

E.1.4.5. Turismo baliabideen komertzializazioa eta suspertze planak mantendu eta hobetu: Web, foiletoak, azokak, e.a. (eskualde mailakoa).

E.1.4.6. Turismo kulturala sustatzearren Markinako pilotarien historia ezagutzera eman. Pilotaren museoa sortu.

## <u>LE1.</u> UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA BULTZATU ETA HERRITARREN ONGIZATEA BERMATU

### P.1.5. Eskualde mailan enplegua eta prestakuntza gauzatu eta garatzeko programa

E.1.5.1. Lan mundura bideratutako formazioa lantzen duten eskualdeko eragile ezberdinen artean, modu koordinatuan orientatzeko dauden ekintzak garatu. (eskualde mailakoa).

E.1.5.2. Lanbide Hasierako zentro berri bat eraiki (eskualde mailakoa).

E.1.5.3. Eskualdean intsertzio enpresa berri bat sortu (eskualde mailakoa).

E.1.5.4. Pertsona ororen lan munduratzea erraztu eta aukera berdintasuna sustatzearren eskualdean dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa).

E.1.5.5. Bizitza guztian zeharreko ikaskuntza sustatzeko dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa).

E.1.5.6. Eskualdean formazio eta enplegurako erakunde-esparru egonkor bat eratzeko dauden estrategia eta ekintzak garatu (eskualde mailakoa).

| **Definizioa** | Udalerriko herritarren mugikortasuna aztertzen du. Herritar bakoitzaren mugikortasun-eredu orokorra definitzeko alderdiak barne hartzen ditu:<br><br>1. Bizilagun bakoitzak egunero egiten duen desplazamendu-kopurua batez beste (desplazamendu-kopurua biztanleko).<br><br>2. Bizilagun bakoitzak batez beste egindako distantzia (km biztanleko).<br><br>3. Herritar bakoitzaren desplazamenduen batez besteko iraupena (minutuak biztanleko).<br><br>4. Desplazamenduaren arrazoia eta asteko erregulartasuna, desplazamenduak honela sailkatuz: sistematikoak edo ez-sistematikoak (bidaia sistematikoen % vs. bidaia ez-sistematikoen %).<br><br>5. Desplazamenduak egiteko erabilitako garraiobideak eta desplazamendu bakoitzean egindako distantziak (kontuan hartutako garraiobide bakoitzari dagokion %). Mugitzeko ondorengo moduak hartu dira kontuan: | | |
| **Unitateak** | Despl/bizt: 1<br><br>Km/bizt: 2<br><br>Minutu/bizt:3<br><br>%: 4 eta 5 | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | IHOBEk lau urtean behin egiten duen galdeketaren bidez datuak lortzea (udal-ekobarometroa). | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu: 1, 2, 3 eta desplazamendu pribatuak.<br><br>Handitu: motorrik gabeko desplazamenduak eta desplazamendu kolektiboak | | |
| **Europarra** | Bai | | |
| **Oharrak** | Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da. | | |

<table>
<tr><td colspan="4" align="right">4. Adierazlea</td></tr>
<tr><td colspan="4" align="right">GARRAIO-AZPIEGITURETAN ERABILITAKO UDAL-AZALERAREN BANAKETA</td></tr>
<tr><td>Definizioa</td><td colspan="3">Udalerrian garraiobideen azpiegituretan erabilitako azaleraren banaketa (%) ebaluatzen du, garraiobide hori zein den kontuan hartuta:<br><br>1. Oinezkoek erabiltzeko azalera (erabilera ugariko kaleak, baina oinezkoek lehentasuna izango dutenak –alderantzizko lehentasuna– eta espaloiak).<br><br>2. Bizikletetarako egokitutako azalera (bizikletetarako bideak).<br><br>3. Garraio publiko kolektiboak erabiltzeko azalera (autobusen bideak edo trenbideak).<br><br>4. Motordun ibilgailuek erabiltzeko azalera (hiri barneko eta hiri arteko errepideak), garraio publiko kolektiboak erabiltzeko azalera alde batera utzita.</td></tr>
<tr><td>Unitateak</td><td colspan="3">%</td></tr>
<tr><td>Balioa</td><td></td><td>Urtea</td><td></td></tr>
<tr><td>Informazio iturria</td><td colspan="3">Adierazle hau kalkulatzeko hiru metodo erabil daitezke:<br><br>1. Udalerriko kartografia digitaleko sistemen bidez datuak lortzea (GIS).<br><br>2. Kategoria bakoitzak erabiltzeko azaleraren kalkulua udalerriko kartografia zehatza erabiliz.<br><br>3. Tokian tokiko lanen bidez datuak lortzea.</td></tr>
<tr><td>Lortu nahi den joera</td><td colspan="3">▫ 1, 2 eta 3: Handitu<br><br>▫ 4: Txikitu</td></tr>
<tr><td>Europarra</td><td colspan="3">Ez</td></tr>
<tr><td>Oharrak</td><td colspan="3">Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***5. Adierazlea*** | | | |
| ***UR-KONTSUMOA*** | | | |
| **Definizioa** | Udalerriko ur-kontsumoa hainbat ikuspuntutatik aztertzen du:<br><br>1. Uraren etxeko kontsumoa (litro/bizt./egun).<br><br>2. Udalerriko ur-eskaria (altako hornidura) guztira (m3/urte).<br><br>3. Ur-eskari osoaren banaketa sektoreka udalerrian (%). Ondoko sektoreak hartu dira kontuan: Etxekoa, zerbitzuak, industria, udalerria, nekazaritza.<br><br>4. Banaketa-sarean gertatzen diren galerak, ur-eskari osoaren ehuneko gisa (%). | | |
| **Unitateak** | litr/bizt.//egun: 1<br><br>m3/urte: 2, 4<br><br>%: 3 | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira:<br><br>• Uraren etxeko kontsumoa (fakturatutako ur-bolumena): udalerriko ur-horniketaz arduratzen den enpresa.<br><br>• Ur-eskaria guztira: udalerriko ur-horniketaz arduratzen den enpresa (ur-hartune pribatuak ere barne hartu behar dira, datu hori eskuragarri dagoen kasuetan behinik behin, bai eta nekazaritzaren sektoreko ur-eskaria ere).<br><br>• Ur-eskariaren banaketa sektoreka: udalerriko ur-horniketaz arduratzen den enpresa, eta ureztatzaile-elkarteak nekazaritzaren sektorerako.<br><br>• Biztanleak: udal-errolda. | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | ***6. Adierazlea*** |
| | | | ***ENERGIA-KONTSUMOA*** |
| **Definizioa** | Udalerriko energia-kontsumoa (elektrizitatea eta gas naturala) aztertzen da, hainbat ikuspuntutatik:<br><br>1. Elektrizitatearen eta gas naturalaren etxeko kontsumoa (tpb/bizt./urte).<br><br>2. Udalerriko elektrizitatearen eta gas naturalaren kontsumoa guztira, energia-iturriaren arabera (tpb/urte).<br><br>3. Udalerriko energia-kontsumoaren banaketa sektoreka. Kontuan hartu beharreko sektoreak: Etxekoa, Zerbitzuak, Industria, Udalerria, Garraioa, Nekazaritza. | | |
| **Unitateak** | tpb/bizt//urte: 1<br><br>tpb/urte: 2<br><br>%: 3 | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturriak** | Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira:<br><br>Gas naturalaren, eta elektrizitatearen kontsumoa: enpresa hornitzaileei sektoreen arabera izan den kontsumoaz galde dakieke.<br><br>Biztanleak: udal-errolda | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | ***7. Adierazlea*** |
| | | | ***HONDAKINEN SORRERA ETA KUDEAKETA*** |
| **Definizioa** | Sortutako hondakinen bolumena eta horien kudeaketa aztertzen da. Kontuan hartuko diren aldagai nagusiak hauek dira:<br><br>1. Hiri-hondakinen sorrera, biztanleko eta eguneko (kg/bizt./egun).<br><br>2. Hiri-hondakinen kudeaketa: balorizazioa (birziklatzea –gaikako bilketa eta errausketa– edo zabortegia (%)).<br><br>3. Hondakin arriskutsuen sorrera (tona/urte).<br><br>4. Hondakin arriskutsuen kudeaketa: balorizatzea eta ezabatzea (%). | | |
| **Unitateak** | Kg/biz//egun:1<br><br>%: 2 eta 4<br><br>tona/urte: 3 | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira:<br><br>Hiri-hondakinen sorrerari eta kudeaketari buruzko datuak: Hiri-hondakinen bilketari (ohikoa, gaikakoa eta puntu berdeak) eta kudeaketari buruzko datuak eskatzea Mankomunitateei (Gipuzkoa), Koadrilei (Araba) eta Garbikerri (Bizkaia) . Gerta daiteke datuak ez agertzea udalerrien arabera bereizita; hala bada, biztanle bakoitzeko batezbestekoa aterako da.<br><br>Hondakin arriskutsuen sorrerari eta kudeaketari buruzko datuak: Eusko Jaurlaritzari (Ingurumen Sailburuordetza) eskatzea udalerrian dauden eta Hondakin Arriskutsuen Sortzailetzat sailkatu diren industriek adierazitako Hondakin Arriskutsuen kopurua.<br><br>Biztanleak: Udal-errolda. | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu: 1, 3, zabortegia eta ezabatzea.<br><br>Handitu: balorazioa | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da. | | |

<table>
<tr><td colspan="4" align="right">8. Adierazlea</td></tr>
<tr><td colspan="4" align="right">HONDAKINAK URETARA ISURTZEA</td></tr>
<tr><td>Definizioa</td><td colspan="3">Uraren kalitatea aztertzen da, bi ikuspegi hauetatik:<br><br>1. Ibaien kalitatea (BMWP’ Indizea) eta, dagokionean, kostaldeko uraren eta estuarioetakoaren kalitatea (koefiziente biotikoa).<br><br>2. Hondakin-urak tratatzeko sistemak dituzten udalerriko etxebizitzak (%).<br><br>2.1. Hondakin-uren saneamendu-sarearekin konektatuta dauden udalerriko etxebizitzak (%).<br><br>2.2. Hondakin-uren saneamendu-sarearekin konektatuta ez dauden udalerriko etxebizitzak, baina ura tratatzeko sistema egokiak dituztenak (%)</td></tr>
<tr><td>Unitateak</td><td colspan="3">BMWP´ Indizea eta Koefiziente biotikoa: 1<br><br>%: 2</td></tr>
<tr><td>Balioa</td><td></td><td>Urtea</td><td></td></tr>
<tr><td>Informazio iturria</td><td colspan="3">Informazio-iturriak hauek dira:<br><br>Ibaien kalitateari (BMWP’ Indizea) eta estuarioetako eta kostaldeko urari (Koefiziente biotikoa) buruzko datuak: Eusko Jaurlaritzari (Ingurumen Sailburuordetzari) eskatuko zaio udalerritik gertuko estazioei dagokien informazioa. Batzuetan, Foru Aldundiek ere izan dezakete horrelako informazioa.<br><br>Hondakin-uren saneamendu-sarearekin lotuta dauden udalerriko etxebizitzei buruzko datuak.<br><br>Udalerriko etxebizitzak. Hirigintzako zinegotzigoa</td></tr>
<tr><td>Lortu nahi den joera</td><td colspan="3">Hobetu: 1.<br><br>Handitu: 2.</td></tr>
<tr><td>Europarra</td><td colspan="3">Ez</td></tr>
<tr><td>Oharrak</td><td colspan="3">Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***9. Adierazlea*** | | | |
| ***INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMAK UDALERRIAN*** | | | |
| **Definizioa** | Udalerriko jardueretan ingurumen-kudeaketako sistemek (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, Jasangarritasun Txostenak) duten ezarpen-maila aztertzen da. Arlo hauek hartuko dira kontuan:<br>1. Enpresa handiak eta ertainak.<br>2. Herri-erakundeak (Udala eta herri-elkarte eta -erakundeak).<br>3. GKEak. | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira:<br>Ingurumen-kudeaketako sistemak dituzten enpresa handiak eta ertainak: IHOBE.<br>Ingurumen-kudeaketako sistemak dituzten herri-erakundeak: Udala, IHOBE.<br>Ingurumen-kudeaketako sistemak dituzten GKEak: Udala, IHOBE.<br>Enpresa handi eta ertainen, herri-erakundeen eta GKEen kopurua: Udala. | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Bai | | |
| **Oharrak** | Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***10. Adierazlea*** | | | |
| ***POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA*** | | | |
| **Definizioa** | Oinarrizko Errentaren prestazioa jasotzen duten udalerriko familien ehunekoa | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira:<br><br>Oinarrizko Errentaren prestazioa jasotzen duten familien kopurua: Udaleko Gizarte Zerbitzuen saila.<br><br>Familia-unitateen kopurua: Udala, EUSTAT. | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***11. Adierazlea*** | | | |
| ***LANGABEZIA-TASA*** | | | |
| **Definizioa** | Biztanleria aktiboaren barnean dauden langabeen ehunekoa aztertzen du | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Adierazle hau kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira:<br><br>Langabezia-tasa: EGAILAN edo EUSTAT | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***12. Adierazlea*** | | | |
| ***HERRITARREK UDAL-KOMUNITATEAREKIN DUTEN GOGOBETETZE-MAILA*** | | | |
| **Definizioa** | Herritarrek beren ustez duten ongizate-maila aztertzen da. Horretarako, oro har, komunitateari eta, zehazki, beste alderdi zehatz batzuei dagokienez duten gogobetetze-maila aztertzen du (oso gustura, nahiko gustura, ez oso gustura, batere gustura ez, ez daki edo ez du erantzun). Hau da, herritarrak honako arlo hauekin gustura dauden aztertzen du:<br><br>1. Udalerria, bizitzeko eta lan egiteko toki den neurrian.<br><br>2. Etxebizitzaren kalitatea, erabilgarritasuna eta eskuragarritasuna.<br><br>3. Bertako lan-aukerak.<br><br>4. Natur ingurunearen kalitatea eta kopurua (berdeguneak, ibaiak, etab.).<br><br>5. Eraikitako ingurunearen kalitatea (kaleak, espazio publikoak, eraikinen egoera, etab.).<br><br>6. Gizarte- eta osasun-zerbitzuen maila.<br><br>7. Kultur eta aisialdiko zerbitzuen maila.<br><br>8. Ikastetxeen kalitatea.<br><br>9. Herri-garraioko zerbitzuen maila.<br><br>10. Udal-plangintza egiteko eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukerak.<br><br>11. Herritarren segurtasun-maila. | | |
| **Unitateak** | % eta batez besteko balioa | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | IHOBEk lau urtean behin egiten duen galdeketaren bidez datuak lortzea (udal-ekobarometroa). | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Bai | | |
| **Oharrak** | Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 1*** | | | |
| ***HIRIKO AIREAREN KALITATEA*** | | | |
| **Definizioa** | Kalitate oneko airea erregistratzen den egun kopurua | | |
| **Unitateak** | Egun kopurua | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | EAE-ko Airearen kalitatea neurtzeko sareko estazioetako informazioa eskatzea Eusko Jaurlaritzari. | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 2*** | | | |
| ***INGURUMEN-HEZIKETA*** | | | |
| **Definizioa** | Udalerrian garatutako ingurumen-heziketarako jardueren kopurua eta horietan parte hartzea | | |
| **Unitateak** | Jarduera kopurua/ parte-hartzaile kopurua | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Udaleko Ingurumen Saila | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 3*** | | | |
| ***ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA ETXEBIZITZETAN*** | | | |
| **Definizioa** | Energiaren eraginkortasunari buruzko ziurtagiriak dituzten etxebizitzen/eraikinen kopurua | | |
| **Unitateak** | Etxebizitza kopurua | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | EVE/CADEM kontsultatzea | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 4*** | | | |
| ***JASANGARRITASUNA SUSTATZEN DUTEN PRODUKTUEN KONTSUMOA*** | | | |
| **Definizioa** | Etiketa ekologikoa duten produktuen eta produktu biologikoen edo merkataritza-jarduera leialen (merkataritza justua) xede direnen kontsumo osoaren ehunekoa | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia5*** | | | |
| ***INGURUMENEKO UDAL GASTUAK*** | | | |
| **Definizioa** | Ingurumeneko udal gastu-arrunten ehunekoa | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Udal aurrekontuan Ingurumenari zuzendutako partidak zehaztea eta banaketa aurrekontu osoarekiko. | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 6*** | | | |
| ***AZTARNA EKOLOGIKOA*** | | | |
| **Definizioa** | Dibulgaziozko adierazlea, unitatetzat biztanleko hainbat hektarea erabiliz, erabilitako baliabideak ekoizteko eta biztanle-multzo zehatza batek sortutako hondakina bereganatzeko beharrezkoa den eta ekologikoki produktiboa den sailaren azalera (laboreak, belardiak, basoa keta uretako ekosistemak) aztertzen duena, biztanle talde horrek zehaztugabeko epean bizi maila zehatz bati eusteko moduan eta sail hori edonon egonik ere. | | |
| **Unitateak** | Ha/bizt. | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Elaborazio propioa IHOBEko informaziotik abiatuta lortu | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 7*** | | | |
| ***ZIRKULAZIOAREN INTENTSITATEA OINARRIZKO BIDE SAREAN*** | | | |
| **Definizioa** | Oinarrizko bide sareko puntu adierazgarrienetan erregistraturiko eguneko batez besteko intentsitateen batez besteko balioa | | |
| **Unitateak** | Ibilgailu kopurua/egun | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Aldundiko Garraio eta Obra Publikoetako Sailari eskatzea (Urtez urteko txostena) | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 8*** | | | |
| ***PARKE MUGIKORRA*** | | | |
| **Definizioa** | Ibilgailuen PARKEA KARROZERIA motaren arabera (automobilak, motozikleta, e.a.) | | |
| **Unitateak** | Ibilgailu kopurua karrozeria motaren arabera | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Udalerriko ibilgailu kopurua Eustaten bidez lortua edo zirkulazio zergaren arabera. | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 10.*** | | | |
| ***HIRIKO ZARATA*** | | | |
| **Definizioa** | Osasunerako Mundu Erakundeak aholkatutakoaz gaindiko soinu maila jasaten duten biztanleen ehunekoa | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Udal zerbitzuak eta airearen kalitateari buruzko ikerketak | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 10.*** | | | |
| ***LANDUTAKO ETA BOTATAKO BASOEN AZALERA*** | | | |
| **Definizioa** | Landutako baso azaleraren (bertako espezieak) eta zuhaitzak botata dituen azaleraren arteko ratioa. Hobe litzateke ratio horiz uhaitz kopuruaren bidez adieraztea | | |
| **Unitateak** | Landutako azalera/Zuhaitzak bota diren azalera | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Nekazaritza Saila | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 11.*** | | | |
| ***ARAZTUTAKO UREN ERABILERA*** | | | |
| **Definizioa** | Berrio erabiltzen diren araztutako uren ehunekoa | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 12*** | | | |
| ***ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA*** | | | |
| **Definizioa** | Energia berriztagarrien kontsumoa (edo produkzioa) guztira | | |
| **Unitateak** | Tep | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Udala edo EVE | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 13*** | | | |
| ***EUSKARAREN EZAGUTZA*** | | | |
| **Definizioa** | Euskaraz dakiten biztanleen ehunekoa | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | EUSTATeko zentsurako inkesten bitartez /Udala | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 14*** | | | |
| ***GIZARTE POLITIKAKO UDAL GASTUAK*** | | | |
| **Definizioa** | Udalak gizarte politiketarako bideratutako gastu arrunten ehunekoa | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Gizarte gaietara zuzendutako gastu arruntaren zenbatekoa eskatu Gai Sozialetarako zinegotzi Sailari eta herriko gastu arrunta Ekonomiako zinegotzi sailari | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | ***Adierazle berezia 15*** |
| | | | ***NAZIOARTEKO ELKARTASUN JARDUERETAN UDALAK DUEN ESKU HARTZEA*** |
| **Definizioa** | Udalak garapenerako nazioarteko lankidetzarako bideratutako gastu arrunten ehunekoa. | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 16*** | | | |
| ***BIZTANLERIAREN ZAHARTZE INDIZEA*** | | | |
| **Definizioa** | 65 urte edo gehiago dituzten herritarren ehunekoa | | |
| **Unitateak** | % | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Kalkulatzeko metodoa** | Udal Errolda | | |
| **Lortu nahi den joera** | TXIKIAGOTU | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 17*** | | | |
| ***ETORKINEN INTEGRAZIOA*** | | | |
| **Definizioa** | Udalerrian erroldatuta dauden etorkinen kopurua | | |
| **Unitateak** | Pertsona kopurua | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Udal errolda | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 18*** | | | |
| ***HERRITARREN PARTE-HARTZEA*** | | | |
| **Definizioa** | Herritarren parte-hartzea helburu duten udal organo egonkorren bileren kopurua, horietan aztertzen diren gaiak bereiziz (ingurumena, gizartea, e.a.) | | |
| **Unitateak** | Bileren kopurua/urtean | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Herritarren parte-hartzea helburu duten organo egonkorren bileren aktak biltzea. Organo hauek herritar eta/edo udal eragile ezberdinen parte hartzea bultzatzeko sortuak, ingurumen gaik lantzen dituztenak, Udalak ofizialki onartutakoak eta organo egonkor bezala ikusiak direnak izango dira. | | |
| **Lortu nahi den joera** | Handitu | | |
| **Europarra** | Ez | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 19*** | | | |
| ***HERRITARREN SEGURTASUNA*** | | | |
| **Definizioa** | Udalerrian 1000 biztanleko izaten diren delituen edo hutsegiteen kopurua | | |
| **Unitateak** | Delituen eta hutsegiteen kopurua | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | | | |
| **Oharrak** | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***Adierazle berezia 20*** | | | |
| ***BIDE SEGURTASUNA*** | | | |
| **Definizioa** | 1.000 ibilgailuko izaten diren istripuen kopurua | | |
| **Unitateak** | Istripu kopurua | | |
| **Balioa** | | **Urtea** | |
| **Informazio iturria** | Udaltzaingoa eta Ertzaintza | | |
| **Lortu nahi den joera** | Txikiagotu | | |
| **Europarra** | | | |
| **Oharrak** | | | |

# 3. ERANSKINA: HERRITARREN PARTE-HARTZE FOROAREN ARAUDI EREDUA

**MARKINA-XEMEINGO IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO HERRITARREN PARTE-HARTZE FOROA**

# ATARIKO IDAZPURUA

**1.artikulua.- Eraketa**

Tokiko Administrazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduak xedatutakoaren eta Udalbatzak xx-ko xx-an Europako Hiri eta Herrien Iraunkortasunerako Gutuna (Aalborgeko Gutuna) onestearekin hartutako konpromisoaren babespean, Markina-Xemeingo Udalean **MARKINA-XEMEINGO Iraunkortasunerako Herritarren Parte-hartze Foroa** eratu da, kontsultarako izaeraduna.

**2.artikulua.- Definizioa**

MARKINA-XEMEINGO Iraunkortasunerako Herritarren Parte-Hartze Foroa elkarte eta herritar taldeengana zuzendutako kontsultarako izaera duen organoa da, zeina era berean eztabaidarako gune izango den, tokiko iraunkortasuneko gaiekin lotuta (ekonomikoak, gizarte arlokoak eta ingurumenekoak).

Foroaren helburua herriko bizi kalitatea hobetzeko ekintzak sustatu, aditzera eman edo bultzatzea da, beronen kide herritar elkargoak, enpresak, alderdi politikoak, sindikatuak, hezkuntza zentroak, Udal Batzordea (iraunkortasunekoa), udalaz gaindiko organo eta elkargoak eta herritarrak oro har izanik, herriaren interesak ordezkatuz.

**3.artikukua Jarduketa eremua**

MARKINA-XEMEINGO Iraunkortasunerako Herritarren Parte-hartze Foroaren jarduera esparrua tokiko iraunkortasunarekin lotura duten gaiak lantzean datza, Tokiko Agenda 21 prozesuak ezarritako kudeaketa sistema jarraituz.

**4.artikulua Eginkizunen izaera**

MARKINA-XEMEINGO Iraunkortasunerako Herritarren Parte-hartze Foroak informazioa eman edo proposamenak egingo ditu, izaera loteslerik gabe beti ere.

Foroak, iraunkortasuneko udal batzordeko ordezkariaren bidez, iraunkortasun gaien inguruko akordio lotesleak hartzea proposatuko dio Udal Gobernu Batzordeari.

**5 artikulua. Eginkizunak**

Foroak eginkizun hauek izango ditu:

1. Izaera orokorrekoak:

a) Udalarekin batera Tokiko Agenda 21 prozesuan lan egin modu koordinatu eta paraleloan.

b) Foroaren jarduera eremuarekin loturiko araudi jarduketa edo bestelakoen arduradun politikoek bidalitako informazioa jaso.

c) Iraunkortasunarekin erlazionaturiko gai edo proiektuei dagokienean Udaleko Gobernu arduradunek iraunkortasun arloko gaiei edo egitasmoei buruz eskatutako txostenak eta proposamenak burutu.

d) Ekonomia, gizartea eta ingurumen arloan udalaren jarduna hobetuko duten neurriak edo jarduerak proposatu.

e) Ekonomia, gizartea eta ingurumen arloan sortutako kexak, erreklamazioak eta kezkak aurkeztu.

f) Dagokion jarduera esparruan ekimen publiko eta pribatuen arteko koordinazioa bultzatu.

2. Izaera zehatzekoak:

a) Udalerriaren ekonomia, gizartea eta ingurugiro kalitateari buruzko diagnostikoa ezagutu eta horren lorpenean parte hartu. Udalerriak, iraunkortasunari dagokionez, dituen lehentasunezko arazoak zeintzuk diren zehazten lagundu.

b) Agenda 21en ezarpena proposatu, bultzatu eta lan honetan parte hartu, beronen iraunkortasun politika diagnostikatu eta antolatzeko partaidetza metodo orokorraren ikuspuntutik.

c) Ingurugiroari buruzko informazioa eman eta biztanleria sentikortzeko kanpainak eta ekitaldiak proposatu eta bultzatu.

d) Habitat naturalak zaindu, hobetu eta berreskuratzeko Plan eta Egitasmoak buru daitezen proposatu.

e) Hondakinak bereiztuta bildu eta birziklatu eta berauen ekoizpena murrizteko politikak sustatu.

f) Obra eta hirigintza proiektuak ingurunera egokitzeko beharrezko neurriak sustatu. Horretarako, obra edo proiektu hauek eragin lezaketen ingurumen eragina murrizteko proposamenak burutuko dira, arloa eskudunari helaraziz.

g) Iraunkortasun irizpideak proposatu Udalaren jarduera zein herritarren jarduerari begira.

h) Eraikinen eraikuntzan irizpide bioklimatikoak kontutan har daitezen sustatu.

i) Energia berriztagarriak ezarri eta erabiltzeko programak sustatu.

j) Enpresetan ekoizpen garbiko programen ezarpena sustatu.

k) Ingurumen arloko udal araudiaren gauzapena sustatu eta prozesu honetan parte hartu.

l) Lanpostuak sortzea xede duten Plan eta Egitasmoen gauzatzea proposatu, sektore kritikoenei zuzenduta batik bat -emakumezkoak eta prestakuntza eskasa duten sektoreak-.

m) Aisialdirako azpiegiturak eta ekipamenduak hobetu eta hedatzeko Plan eta Proiektuak gauzatzea proposatu.

n) Ondare historiko eta artistikoa babesteko ekintzak bultzatu.

o) Herriko mugikortasun eta irisgarritasun baldintzak hobetzera zuzendutako Plan eta Proiektuak gauzatu daitezen proposatu.

**6.artikulua. Fororako Asistentzia**

Foroan parte hartzeko interesa dutenek MARKINA-XEMEINGO Udalean aurkituko duten parte-hartze eskaera inprimakia bete beharko dute.

## I IDAZPURUA

## KONTSEILUKO ORGANOEZ

**7. artikulua. Osaketa**

Foroak ondoko organoak hartuko ditu bere baitan:

a) Foroaren Osoko Batzarra
b) Lehendakaritza
c) Idazkaritza
d) Lan batzordeak

**8. artikulua. Foroaren Osoko Batzarra**

Foroaren Osoko Batzarra ondokoek osatuko dute:

a) Iraunkortasunerako Udal Batzordea
b) Udalaz gaindiko erakunde eta elkarteak
c) Udal elkarteak
d) Enpresak
e) Alderdi politikoak
f) Sindikatuak
g) Hezkuntza zentroak
h) Herritarrak

**9. artikulua. Foroaren Osoko Batzarreko kideen eskuduntzak.**

Foroaren Osoko Batzarreko kideen ahalmenak ondokoak izango dira:

a) Lan saioetako eztabaidetan parte hartu beren iritzia emanez.

b) Boto-eskubidea.

c) Lehendakaria eta lehendakariordea aukeratu.

d) Bileretan galdera eta eskaerak burutu.

e) Gai zerrendako gaiak argitzen lagunduko duten aurrekariak, argibideak eta agiriak eskatu, Kontseiluko idazkariaren bitartez.

f) Lehendakariak eguneko gai zerrendan sar ditzan proposamenak eta mozioak idatziz planteatu.

g) Batzarkide izateari berez dagozkien gainerako zeregin oro.

Foroaren Osoko Batzarra osatzen duten taldeen ordezkariek taldeko beste kideren baten esku laga dezake berauen ordezkapena, baina ez norberaren izenean parte hartzen dutenek.

**10. artikulua. Lehendakaria.**

Foroko kideetako batek Lehendakari kargua izango du.

Foroaren Osoko Batzarrak aukeratuko du Lehendakaria eta karguak 2 urteko iraupena izango du; epe honen amaieran lehendakari berria aukeratuko da.

Udal ordezkariek ez dute Lehendakari izateko aukerarik izango.

**11. artikulua. Lehendakariaren betebeharrak**

Lehendakariaren betebeharrak ondokoak dira:

a) Foroaren ordezkari izan.

b) Ohiko Bilkurak eta Apartekoak deitu eta eguneko gai-zerrenda zehaztu; gainontzeko kideek egindako eskaerak kontutan edukiko ditu, beti ere aurrerapen nahikoarekin (gutxienez saioa burutzeko data baino 7 egun lehenago) burutu baldin badira.

c) Bilkuren buru izan, eztabaidak moderatu eta bidezko arrazoiengatik bilkurak eten.

d) Berdinketa kasuetan bere botoaren bidez berdinketa deuseztatu.

e) Foroan adostutako ekimen eta proposamenen berri eman.

f) Lehendakari izateari berez dagozkion gainerako zeregin oro.

Gaixotasun, hutsegite edo beste arrazoi legalen bat dela medio Lehendakariak ezin badu bileran parte hartu Iraunkortasun Udal Kontseiluko beste kide batek ordezkatuko du (Lehendakariordea).

**12. artikulua. Idazkaria**

Idazkari kargua beteko duenak, hitzarekin baina botorik gabe, udal teknikari edo lagatzen duen pertsonaren esku egongo da.

**13. artikulua .Idazkariaren betebeharrak**

Idazkariari dagokio:

a) Bilkuretara joan, hitzarekin baina botorik gabe.

b) Lehendakariak aginduta Foroaren bilkuretarako deialdiak burutu, Foroko kideei deia eginez.

c) Foroko kideen komunikazio ekintzak, eta beraz, notifikazioak, datu eskariak, zuzenketak edo kontutan eduki beharreko beste edozein motako idatzi jaso.

d) Foroaren helburu eta beharrei dagokion informazioa bildu.

e) Gaiak prestatu, idatzi eta bilkuretako aktak eskuetsi.

f) Kontsulta, irizpen eta onartutako akordioen ziurtagiriak egin.

g) Akten artxibo bat mantendu, dagokion direktorioan sartuko direla ziurtatu, eta informazio kontseiluari dagozkion kopiak bidali epe jakinean.

h) Idazkari izateari berez dagozkion gainerako zeregin oro.

**14. Artikulua. Lan batzordeak**

a) Iraunkortasunarekin edota Agenda 21eko Gaikako Alorrekin loturiko gai puntualei berariazko tratamendua eman behar zaienean eratu ahal izango dira Lan Batzordeak; baita Foroaren Osoko Batzarrak beharrezkotzat jotzen duenean ere.

b) Lan Batzordeen osaketa, izendapena eta funtzionamendua Foroaren Osoko Batzarrak zehaztuko ditu.

c) Lehendakariak, beharrezkotzat edo bidezkotzat jotzen duen laguntza teknikoa eska dezake.

d) Lan Batzordeek, landutako gaien berri emango diote Foroko Osoko Batzarrari.

**15. Artikulua. Foroaren dinamizazioa**

Saioak, Foroaz kanpoko eragile edo dinamizatzaile batek moderatuko ditu, beronen eginkizunak honakoak izango direlarik: gai zerrendan aurreikusi ez diren gaiak tratatzea ekidin, saioak moderatu eta denbora alperrik gal ez dadin debatea aberasten ez duten eztabaidak ekidin.

**16. Artikulua. Plaza hutsak.**

Uko egite, gaixotasun, heriotza, hutsegite, kargu-uzte, etab.-en ondorioz sorturiko plaza hutsen berri Foroaren Osoko Bilkurari berehala emango zaio, beharrezko neurriak har daitezen.

**17. Artikulua. Kide berrien gehitzea.**

Forora kide berrien gehitzea 6. artikuluan aurreikusitako eskabide inprimakia beteaz (eskuragarria Markina-Xemeingo Udaleko.....Sailean) burutuko da. Honekin batera, gehitze berriaren arrazoiak zehazten dituen azalpen dokumentua aurkeztuko da. Inplikatutako gizarte eragile, elkarte, enpresa, hezkuntza zentro etab.-ek lehentasuna izango dute.

Eskaera berrien onarpenak Foroko Osoko Bilkuraren hurrengo bileran burutuko dira.

## II IDAZPURUA

## ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAZ

**18. Artikulua. Deialdia**

Foroaren deialdia Lehendakariak burutuko du, landu beharreko gaiak Gai Zerrendan zehaztuz.

Foroko Gai Zerrenda gutxienez bilera burutu baino bost egun natural lehenago jasoko dute kide guztiek.

**19. Artikulua. Ohiko Bilkurak**

Foroaren Ohiko Bilkurak bi hilabetean behin burutuko dira.

**20. Artikulua. Aparteko Bilkurak.**

Foroaren Lehendakariak bere ekimenez beharrezkotzat joko balu edo Foroko edozein kidek proposatu eta Foroko kideen herenak (1/3) bultzatuta, Foroaren Aparteko Bilkura burutuko da.

**21. Artikulua. Bileren publikotasuna**

Saioaren deialdian Lehendakariak hala zehaztu ezean, hau ez da publikoa izango eta bileretara deituak izan diren Foroko kideek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Lehendakariak, saio zehatzetara bertan tratatu beharreko gaiekin erlazionaturiko pertsonak edo interes publikodun helburuak jarraitzen dituzten elkarteak gonbida ditzake. Hauek guztiek hitza izango dute baina ez botorik. Gonbidapena idatziz eta saioaren deialdia baino lehen burutuko da, Gai Zerrendan partaideon berri emango delarik.

**22. Artikulua. Quoruma.**

Organoaren baliozko osaketarako, saioak eta eztabaidak burutu eta erabakiak hartzeari dagokionean, kideen erdiaren presentzia beharrezkoa izango da; kideon artean Lehendakaria edo beronen ordezkoa (Lehendakari Ordea edo Udal Iraunkortasun

Batzordeko Ordezkaria) izatea derrigorrezkoa izango da.

**23. Artikulua. Gai zerrendan jasotzen ez diren gaien tratamendua**

Gai zerrendan jasotzen ez diren gaien inguruko eztabaida edo akordiorik ezin izango da burutu, ondoko baldintzak bete ezean:

1. Bilerara kideen erdia gehi bat bertaratu dira eta,

2. Gehiengo soilez bertaratutakoek gaia tratatzea premiazkotzat jo dute.

Bi baldintzok beteko ez balira gaia hurrengo bileran landu beharko da.

**24. Artikulua. Erabakiak hartzea.**

Erabakiak bertaratutakoen gehiengo soilez hartuko dira. Foroko edozein kidek hala eskatuko balu botoa isilpekoa izango da

**25. Artikulua. Akta**

Idazkariak Foroaren saio bakoitzeko akta jasoko du, bertan nahitaez ondokoak zehaztuko direlarik: bertaratutakoak, bileraren gai zerrenda, lekua eta iraupena, eta harturiko erabakien berri.

Foroko kideen eskakizunei jarraituz, Foroko Aktan hartutako akordioen inguruko aurkako botoen, abstentzioen edo aldeko bozka ematearen arrazoien inguruko berri jasoko da. Era berean, edozein kidek bere interbentzio edo proposamenen transkripzio osoa aktan barnera dadin eska dezake, baldin eta momentuan edo Lehendakariak ezartzen duen epearen baitan bere azalpenak fidelki jasotzen dituen testua aurkezten badu; testu hau aktan jasoko da edo beronen kopia atxikiko zaio aktari.

**26. Artikulua. Akten onarpena.**

Aktak Foroaren hurrengo saioan kideen gehiengo soilez onartuko dira. Aktak kide guztiei banatuko zaizkie hurrengo saioaren deialdia eta gai-zerrendarekin batera.

**27. Artikulua. Akten artxiboa.**

Aktak, euren onarpenaren ondoren, Foroaren akten artxiboan gorde daitezen ziurtatuko du idazkariak. Era berean, akten informatika Direktorioan barnera daitezen ziurtatuko du.

**28. Artikulua. Foroaren Estatutu Erregulatzaileen aldaketa**

Foroaren Lehendakariak bere ekimenez edo edozein kidek proposatu eta Foroko kideen herenak (1/3) proposamen hau bultzatuko balu, Estatutu hauek berrikusi egingo dira.

Estatutuen berrikuspenaren ondorioz egindako aldaketak Osoko Bilkuran onartuko dira.